

## EGURRAREN PREZIOEI BURUZKO KEZKA LARRIA

Iraileko azken buletinean esan genuen bezala, **egurraren merkatua pil-pilean dago: eskaria altua da eta prezioak gora doaz**. Gipuzkoan egindako eragiketa batzuetan egiaztatu ahal izan dugu 70 euro baino gehiago ordaindu dela metro kubikoko laurdenean (azalarekin) eta handiagoak ere ikusi ditugu tarteka: 80 €/ m<sup>3</sup>-ko Bizkaian eta 90 €/ m<sup>3</sup>-ko Araban. Urte askotan ikusten ez genituen prezioak dira hauek.

Hori guztia mundu mailan egur eraldatuaren prezioaren igoera handiak eragin du. Lehen transformazioko oinarrizko produktuek, hala nola taula eta ohola, **prezioen errekor historikoak** dituzte. Hala ere, lehengaiaren prezioa, gure mendietako zurarena, duela bi eta hiru urteko salneurrian jarraitzen du kasu askotan. Izan ere, **50 €/ m<sup>3</sup>-ko eskaintzak jasotzen jarraitzen dugu**. Harrigarria eta nahasgarria da, zurezko taula oinarrizkoenaren prezioa % 30etik gorakoa izan denean. Egia esan, eraldatutako produktuaren prezioaren % 30eko aldakuntzak eragin handiagoa beharko luke gurean: zutik dagoen zuraren prezioak portzentaje hori baino aldaketa handiagoa izan beharko luke.

**Kezka larria sortu zaigu** GEBEn eta **horretaz ohartarazi nahi zaituztegu**. Izan ere, **prezioen gorakada hori ez da modu fidel eta ekitatiboan jabeari helarazten ari**, batez ere Euskadin. Gure lurraldetik kanpo, berriz, lehengaiaren prezioen egokitzapen fidelagoa sumatu dugu. Horrexek kezkatzen gaitu.

Akitaniako zutikako zurezko enkanteen prezioak aztertuz gero, ikusten da azken hilabeteetan egurraren prezioa % 30 igo dela, eta uztailean eta urrian igoera izan dela berriro, lehen eraldaketaren merkatuko prezioaren gorakadaren isla garbia (taula, ohola, etab.).

Bide batez, itsas pinuaren enkante horietan ordaintzen ari diren prezioak 57 €/ m<sup>3</sup>-ko ingurukoak dira (pinua errealean). Eta hori gurearekin baliokidetzuz (laurdenean eta azalarekin, 20 cm-raino puntan eta BEZa barne), 90 €/ m<sup>3</sup>-tik gora beharko luke. Badakigu gure mendietako ustiapen-kostuak Akitaniakoak baino handiagoak direla, baina argi dago gure prezioak desorekatuta daudela, egungo merkatuaren errealitatetik kanpo.

**Gure gomendioa da erne egotea**. Gure egurrari balioa eman behar diogu. Elkartean merkatuaren joerak sortzen digun **mesfidantza eta ezinegona** helarazten dizuegu, beraz. Merkatu duala ikusten baitugu, Euskadin behintzat: azken prezioak gero eta garestiagoak dira, eta zuraren jabeari egiten zaizkion eskaintzak, aldiz, gehienetan baxuegiak dira. Egia da hainbat eragiketetan nolabaiteko hobekuntza sumatzen dugula, baina ez da nahikoa, gure ustez, merkatuaren joera eta gure inguruko egoera ikusita.

## PREZIOEN EGUNERATZEA 2021EKO URRIA

Horrekin guztiarekin, prezioen azken eguneratze bat egiten dizuegu ondoren. Urrian egindakoa. Euskadin baso-aprobetxamendu handiena duten bi espezieen oineko erreferentzia-prezioak dira: alde batetik intsinis pinua eta, bestetik, eukaliptoia, azalik gabeko esteroetan zenbatetsitako prezioekin.

Bi kasuetako edozeinetan, zutik eta % 12ko BEZa barne. Gutxi gorabeherako prezio horiek Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederakuntzak egin ditu (posta elektronikoa: info@basoa.org; webgunea: www.basoa.org; telefonoa: 94 456 62 12.

PRECIO DE CONÍFERAS EN PIE (PINO RADIATA) en € m <sup>3</sup> a la CUARTA con corteza y hasta 20 cm en punta delgada (12% IVA incluido)					
Porcentaje a destinos de más valor	0 %	25 %	50 %	75 %	100 %
Volumen medio (m <sup>3</sup> a la cuarta/pie)	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>
Menor que 0,7	42,89	44,28			
Entre 0,7 y 0,85	48,79	50,38	53,1		
Entre 0,85 y 1,1	55,31	56,94	59,94		
Entre 1,1 y 1,3	57,23	59,35	62,93	65,51	
Entre 1,3 y 1,5	60,07	62,43	65,88	68,39	
Mayor que 1,5	61,74	64,21	67,76	70,23	72,61

**PRECIOS A LA CUARTA**

En el caso de que la saca esté condicionada a TIEMPO SECO se podrá reducir el precio 3 €/m<sup>3</sup>

PRECIO DE CONÍFERAS EN PIE (PINO RADIATA) en € m <sup>3</sup> a la REAL con corteza y hasta 20 cm en punta delgada (12% IVA incluido)					
Porcentaje a destinos de más valor	0 %	25 %	50 %	75 %	100 %
Volumen medio (m <sup>3</sup> a la real/pie)	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>	€/m <sup>3</sup>
Menor que 0,94	32,01	33,04			
Entre 0,94 y 1,14	36,41	37,60	39,63		
Entre 1,14 y 1,5	41,28	42,49	44,73		
Entre 1,5 y 1,7	42,71	44,29	46,96	48,89	
Entre 1,7 y 2,0	44,83	46,59	49,16	51,04	
Mayor que 2,0	46,07	47,92	50,57	52,41	54,19

**PRECIOS A LA REAL**

En el caso de que la saca esté condicionada a TIEMPO SECO se podrá reducir el precio 2,24 €/m<sup>3</sup>

PRECIO DE <u>EUCALIPTO EN PIE</u> en <u>estéreos sin corteza</u> (12% IVA incluido)		
ESPECIE	Bajo Volumen de madera (menos de 1.500 est. aprox) (€/est sin corteza)	Gran Volumen de madera (más de 1.500 est. aprox) (€/est sin corteza)
Eucalyptus globulus	29	34
Eucalyptus nitens	25	30

## **GOGORA EZAZU: GARRANTZITSUA DA SALEROSKETA KONTRATUA EGITEA**

### **OHARRAK**

\*\*\* Azterketa honetan ematen diren bolumen-unitateko **prezioak zutik dagoen zurarenak dira, hau da, moztu gabekoak**. Zenbateko hori osatzen dute fabrikan jarritako produktuaren balioak, ustiapen-kostuek eta garraio-kostuek. Prezioa zutik lortzeko, lehenengoari hurrengo biak kenduko zaizkio.

\*\*\* Hiru faktore horiek aldakortasun handia izan dezakete, eta, beraz, azaltzen diren balioak erreferentziatzat hartu beharko dira; hala ere, balio horiek gure bazkideen bidez iristen zaizkigun eskaintzen datuekin, aztertutako enkanteekin eta fabrikako produktuaren balioaren prezioekin alderatzen dira.

\*\*\* Intsinis pinuari buruz ematen diren datuak beste konifero batzuentzako ere balio dezakete, baina beste edozein zehaztasun nahi baduzue, deitu elkartera. Berdin-berdin, hostozabalen espezie batzuen prezioei eta beste zalantza batzuei buruz informatzeko.

\*\*\* Defendatu zure eskubideak. **Egin zure tasazioa**. Eta neurketa duela urte batzuk egin bazenuen eta saltzeko asmotan bazaude, eguneratu tasazioak.

\*\*\* Zuraren salerosketa ez da maiz ematen eta jabearentzat bere biziko garrantzia du. Horregatik, lurralde-elkarteei aholku eskatzea gomendatzen dizuegu. Hala ere, alde zuzenetik, eskaintza ezberdinak eskatzea gomendatzen dizuegu. Horretarako, webgunean **egurra erosten duten enpresen zerrenda** duzue: [https://basoa.org/dmdocuments/WEB\\_Maderistas\\_CONF.pdf](https://basoa.org/dmdocuments/WEB_Maderistas_CONF.pdf)

## PREZIOEN EGUNERATZEA 2021EKO URRIA

---

\*\*\* Bestalde, akordio batera iritsitakoan, garrantzitsua da **zuraren salerosketa-kontratu sinatzea**. Eredu bat duzue gure webgunean: [https://basoa.org/dmdocuments/WEB\\_Modelo\\_contrato\\_compraventaMadera\\_CONFE.pdf](https://basoa.org/dmdocuments/WEB_Modelo_contrato_compraventaMadera_CONFE.pdf) . Oso garrantzitsua da, halaber, **baso-ziklo berriaren birpopulatzeta eta mantentze-lanak** kontratuz ondo lotzea. Eredua: [https://basoa.org/dmdocuments/WEB\\_contrato\\_plantacion\\_2021.pdf](https://basoa.org/dmdocuments/WEB_contrato_plantacion_2021.pdf)

### \*\*\* Zuraren merkatuari buruzko beste lotura interesgarri batzuk:

FORESNA: <http://www.foresna.org/actualidad/mercado-de-la-madera/>

CONSORCI FORESTAL DE CATALUNYA: <https://www.forestal.cat/web/mercats>

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS FORESTALES DE ASTURIAS:  
<https://www.profoas.com/mercado-de-la-madera-en-asturias/>

MADEREA: <https://www.maderea.es/>

CNPF (Frantziako Basojabeen Elkarte Nazionala): <https://nouvelle-aquitaine.cnpf.fr/n/le-prix-des-bois/n:2396>